



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/6. IGELDO
Tfona.: 943-31 30 30 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org



SAN ISIDRO ETA UDABERRI FESTA maiatzean!

AURKIBIDEA

Emakumeen afaria /2

Ieltxo kultur elkartea /2

Herrira /2

Auzo-konposta /3

Lezkarri abesbatza /3

Mendizorrotz GE /4

Kixmi aisialdi taldea /4

Igeldoko Gaztiak /5

Adin txikikoen harrera etxea /5

KONTU KONTARI:

IGELDOKO

NEKAZALTURISMOAK /6-11

Kaixo herrikide!!!

Hilabete honetan azpimarratzekoak dira urtero ospatzen diren San Isidro eguna eta Udaberri festa. San Isidro eguna, dagokion bezala, maiatzaren 15ean izango da eta Udaberri festa

maiatzaren 17-19 (egitaraua, atzean).

Horrez gain, beste hainbat konturen berri izango duzu ale. honetan: Herriraren ekimena, Ieltxok antolatu dituen ekintzak, auzo-konposta...

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak nekazalturismoentzako legea aldatu du eta Igeldon 5 nekazalturismo daudenez, aitzakia polita dela pentsatu dugu jabeekin biltzeko.

Emakume afaria, beti bezain arrakastatsua

Aurten ere, martxoaren 8aren bueltan, herriko adin ezberdinetako emakumeak afari baten aitzakian elkartu eta euren eguna ospatu zuten. Calonge sagardotegian elkartu ziren 50 emakume inguru eta trikitixa, kantu eta dantza artean giro ederra izan zuten. Urtero bezala, baserriko produktuez osatutako 3 saski ederren zozketa ere egin zuten eta honako hauei tokatu zitzaizen: Mila Olazabal, Susana Suarez eta Anabel Segurola.

Horrez gain, Emakumeen Egunaren harira, Pala Txapelketa mixtoa ere egin zen, gazteek antolatuta. Luntxa ere izan zuten ondoren.



Giro ederrean ibili ziren Calonge sagardotegian.

Euskal dantzak ikasteko aukera

Ieltxok ekintza ugari antolatu ditu datozen hilabeteetan. Horien artean, euskal dantza ikastaroa: ostegunero, lokalean (19:30-20:30).

MAIATZA ETA EKAINA EGITARAUA

- II. Laburmetraia Lehiaketa, maiatzaren 10ean, azken eguna.
- II. Argazki Lehiaketa, maiatzaren 15ean, azken eguna
- *Sari Banaketa: Maiatzaren 19an, 17:00etan.
- Euskal dantza ikastaroa, ostegunero.
- Maiatzaren 31n, "Hacia Rutas Salvajes" laburmetraia eta "Bidai bat nola prestatu" tailerra Kultur etxean.
- Ekainaren 20an, Ieltxoren Kurtso amaierako festa Igeldoko Eskolan.

Plaza inguratzeko dei egin du Herrirak, presoan alde

Ekimena, maiatzaren 18an egingo da, 13:00etan.

Iaz bezala, Herrira mugimenduak ekimen desberdinak deitu ditu udaberrian, Euskal Herriko herri, hiri eta auzo guztietan.

Igeldoko Herrirak azpimarratu du, euskal preso politikoen egoerak ez duela hobera egin: "Are gehiago, salbuespen egoera batean murgilduta dauzkate. Eta argi dugu egoera hau aldatzeko herritarron mobilizazio eta konpromezua erabakiorra izango dela", gaineratu dute.

Hori horrela, maiatzaren 18an

ekimen parte hartzaile bat antolatu dute Igeldon. "Eguerdiko 13:00etan, guztion artean herriko plaza inguratzeko asmoa dugu. Honetarako, beste behin, zuen guztion parte hartzea beharrezkoa izango da", dei egin dute.

Ekainean, batzarra

Herriko jaiak gertu daudenez, ekaina hasieran batzar bat antolatzeko asmoa du Herrirak, guztien artean jaietan zer egin pentsatzeko.

Auzo-konposta gunea, martxan

Guztira, herriko 18 familiak hartuko dute parte, 4 taldetan banatuta. Talde bakoitzak bere konposta egingo du, etxeko hondakin organikoekin.

Donostiako Udalak auzo-konposta gunea jartzeko proposamena egin zuen Igeldon eta hainbat herritarrek bat egin dute ekimenarekin. Guztira herriko 18 familiak parte hartuko dute (kaskoan bizi direnek batez ere), eta 4 taldetan banatu dira. Talde bakoitzak bere konposta osatuko du, etxeko hondakin organikoekin. Konposta egiteko hondakin gehigarriak (landareak, adaxkak, etb.) gunean bertan izango dira.

Auzo-konpostan parte hartuko duten herritarrek apirilaren 24an egin zuten bilera. Bertan, hainbat argibide eman zizkieten auzo-konposta gunearen funtzionamendua inguruan eta bide batez, konposta nola egin jakiteko ikastarotxo bat jaso zuten.

Beraz, jada martxan da Igeldoko konposta gunea, ea nolako lana egingen duten bertako partaideek!!!



Konposta gunea Babes Ofizialeko Etxeen ondoan dago, herriko sarreran.

Pilotegi bidean, etxeak dauden zatian, ezingo da aparkatu

Bizilagunek eta Herri Kontseiluko kideek adostu dute neurri hori. Seinaleak jada jarri dira.

Herri Kontseiluak adierazi duenez, herriko zenbait gunetan trafikoko arau berriak ezartzeko asmoa du eta zenbait pauso eman ditu dagoeneko. Esaterako, Pilotegi bidean, Babes Ofizialeko Etxeak dauden zatian, autoak ez aparkatzea adostu

zuten bertako bizilagunek eta Herri Kontseiluko kideek. Eta debeku hori adierazten duten seinaleak jada jarri dira.

Herri Kontseiluak trafikoko antolaketa berri hau errespetatzeko eskaera luzatzen die bertako bizilagunei zein herritar guztiei.

Lezkarririk kontzertua emango du Hernanin

Igeldoko Lezkarririk abesbatzak kontzertua emango du Hernanin, maiatzaren 11n. Arratsaldeko 19:30etan izango da Milagrosa kaperan. Lezkarririk egitaraua, 16 abestiz osatua egongo da, Carmen de las Cuevasen zuzendaritzapean.

Alde batetik, euskal kantak izango dira: *Bai al dakizu maite, Ume Eder bat, Txoritxua nurat hua, Baratze bat, Bili bili bonbollo, Ilunabarra*. Bestetik, polifonia barnean, bost kanta eskainiko dituzte. Eta azkenik, Afrikako kantak. Beste bost abesti.

Gurasoak protestan asteartero, LOMCEren aurka

Lege berriak ondorio tamalgarriak izango dituela salatu dute. Horrez gain, Korrika eta Eskola Txikietako Jardunaldiak egin dituzte, hilabete hauetan.

Lanez gainezka dabil Mendizorrotz Guraso Elkarteak azken aldian; ekintzak antolatzen jo eta fuego. Esaterako, LOMCE legeak euskal gizarte eta hezkuntzan izango dituen ondorio tamalgarriak salatuz, bi ekintza antolatu dituzte: alde batetik, protesta isila egiten dute asteartero, kaskoko autobus geltokian 16:15etatik 16:30etara. Gurasoez gain, eskolako langileak ere elkartzen dira. Bestetik, LOMCEri buruzko bi hitzaldi izan dira Itsas Auren, Mendizorrotz Guraso Elkarteak antolatuta. Alberto de la Cuestak eman zituen azalpenak.

“Igeldon ere euskararen alde”

Korrikarekin bat eginez, martxoaren 22an eskolako haur, langile eta gurasoek Korrika antolatu zuten Igeldoko kaskoan. Euren esanetan, “zeharo zirrargarria izan zen hiruhilabeteko azken egunek horrelako amaiera izatea”. Gustora ibili ziren herritar eta ikastolako partaideak *Igeldon ere euskararen alde* leloa ozen oihukatuz.



Martxoaren 22an Korrika antolatu zuten Igeldon.

Horrez gain, apirilaren 2an, Eskola Txikietako III. Jardunaldiak egin ziren Igeldon. Gipuzkoako zenbait eskola txikitako guraso zein irakasleak etorri ziren hona bi hitzaldi entzutera eta elkarren arte-

ko harremanak sendotzera. Lehena, Joxe Amiamak eman zuen *Familia eta eskolaren arteko komunikazioa* izenburupean; eta bigarrena, Nora Salbotxek *Aniztasuna, izan, badenez* izenburupean.

Kixmirekin irudimena lantzen, Seguran

Aurtengoan ere, Kixmik egin du bere irteera herriko hurrekin (6-14 urte bitartekoekin). Joan den apirilaren 12, 13 eta 14ko asteburua, Seguran pasa zuten. Bertan, jolastuz, dantzatzuz, abestuz... ondo pasatzeko aukera izan zuten, eguraldi eta giro ederrean. Irudimena ere ederki landu zuten, txotxongiloak egin baitzituzten. Eta hauek egin ostean, unetxo batez, antzezle ere bihurtu ziren.

Horrez gain, asko gustatzen zaien *Altxorraren bila* jolasean parte hartuz, herria, herritarak... ezagutzeko aukera izan zuten.

Orri Informatiboari azaldu diotenez, oso gustora ibili ziren denak, bai haurrak eta bai begiraleak, eta harreman ederra izan zuten euren artean.

Udaberri festa eta jaiak prestatzen
Kixmiri orain, Udaberri festa, herriko



Apirileko bigarren asteburuan egin zuten irteera Segurara. Giro ederrean ibili ziren.

festak, udalekuak... prestatzea dago kio eta horretan dabilta taldeko kideak buru belarri. Jakinarazi dutenez,

guztia zehaztu ahala, joango dira ekintzen berri ematen eta informazioa zabaltzen.

Gazteen urteurrena bertan behera, Askegunearekin bat eginez

Igeldoko Gaztiak II. urteurrena ospatzeko asmoa zuten apirilaren 20an, baina azken momentuan bertan behera uztea erabaki zuten, aste horretan eman baitzen Donostiako gazte auziperatuak atxilotzeko agindua. Edozein momentutan atxilotuak izan zitezkeenez, Askegunearekin bat egitea erabaki zuten gazteek, eta hara hurbiltzeko deialdia egin zuten. Festa eguna bertan behera utzi izana sentitzen dutela azaldu dute: "batez ere jendea lanerako lotua zegoelako, taldeak, bertsolariak... baina arrazoa pisuzkoa zela uste dugu", gaineratu dute.

Askegunean bizitakoaren harira, idatzi bat bidali dute:

ASKEGUNEA, AHAZTEZINA

Euskal Herriko gazte askori kostako zaigu aurtengo apirila ahaztea. Izan ere, apirilean iritsi zen Donostiako 15 gazte auziperatuen aurkako sententzia, hauetatik 8 gazte lan politiko eta publikoa egiteagatik 6 urteko kartzela zigorrera kondenatuak izan ziren.

Egoera bidegabe eta krudel honen

aurrean ez ginen besoak gurutzaturik geratu eta ia 2 aste iraun zuen Askegunea martxan jarri zen Donostiako Bulebarrean, herri harresi sendoa osatzeko asmoarekin. Gazte kondenatuen etxeetara joan eta Askeguneraino lagundu, ondoren Askegunean eguna pasa eta berriro ere etxeetara lagunduz igaro zen lehenengo astea. Tartean Ertzaintzak, bere betiko bortizkeria baliatuz, Ekaitz Ibero atxilotu zuen.

Horrela iritsi zen beste gazteak atxilotzeko agindua. Edozein momentutan atxilotuak izan zitezkeenez, Askegunea 24 ordukoa izatera pasa zen. Asteazken eta osteguna igarota, ostirala iritsi zen eta Bulebarrean 1000 pertsona inguru geundela, Ertzaintza etorri eta kondenatuak eraman zituzten, horrelako esaldiak esanez: "Sois unas zorras", "Por que hay camaras si no te rompo la cara", "Que te mueras", eta ostikadak eta ukabildak banatuz. Negar egin genuen ostiral goiz horretan; haserre, ezintasuna, amorrua... sentimendu pila nahasten ziren gure barruan, baina pasatakoa ongi laburbiltzen duen oihu

ozen bat entzuten zen etengabe; GAUR GUK IRABAZI DUGU! Gazteak eramatea lortu zuten arren, egun horietan Bulebarrera hurbildutako jende kopuruagatik, jasotako babesagatik eta batez ere, gazteriak erakutsitako duintasuna eta konpromisoagatik, guk irabazi genuen. Egun horietan igarotako hainbat pasarte gurekin gordeko ditugu betirako: Nola ahaztu kondenatuek erakutsitako adorea? Nola ahaztu Bulebarra lo zakuz beteta ikustea? Nola ahaztu ostegun goizaldean Ertzaintzak atxilotzeko lehen saiakera egitean, erakutsitako indarra?

Kondenatuetako gazte batek zioen bezala "la hostia" izan den arren, hemen ez da ezer amaitzen. Etorrizunean horrelako epaiketa gehiago daude eta Euskal Herri osoan jarraitu beharko dugu Herri harresiak erakitzen eta horrelako erantzunak ematen epaiketa politiko hauek gelditzea eta gazteriaren eskubideak errespetatzea lortu nahi badugu.

Askegunean egondako gazte igeldotarrak

Adin txikikoen harrera etxeak herriarekin eta herrian ospatu zuen laugarren urtemuga

Adin txikiko harrera etxeak 4. urteurrena ospatzeko festa antolatu zuten herrian, martxoaren 22an. Orain artean, urteurrenaren inguruan, ate irekiera jardunaldia antolatu izan dute; bide batez, euren etxeak herriarekin irekiz. Baina aurtengoan, herrian, plazan, Itsas Aurre kultur etxean ospatzeko gogoia adierazi zuten, herriarekin konpartitu nahi baitzuten 4. urtemuga hau. Eta igeldotarrei adierazi nahi zieten beraien esker ona, orain artean izandako harremanagatik. Hori horrela, merienda goxoa prestatu zuten inguratu zen guztiarentzat eta ondorenean kontzertutxo bat ere izan zen. Oso giro polita sortu zen eta bai herritarrak bai beraiek, oso positiboki baloratu zuten elkartzeko hori.



Adin ezberdinetako herritar ugari elkartu zen Itsas Aurren egin zen festan.

IGELDOKO NEKAZALTURISMOAK

Eusko Jaurlaritza egokitzen ari da nekazal inguruneetako turismo zerbitzuak erregulatzeko dituen araudia eta udara aurretik prest egongo dela argitaratu da komunikabideetan. Aldaketa bat ere aurreratu dute: neka-

zalturismoko jabeek dagoeneko ez dute zertan bertan bizi. Igeldon 5 nekazalturismo daude eta aitzakia aprobetxatuz, Orri Informatiboa eurekin bildu da. Beste hainbat kontu ere aipatu dituzte.

Bertan bizi edo ez, gertuko harremana oinarri

Igeldo, ingurune ederrean kokatua dago, lasaia da, pasaia zoragarria du, Donostia ondoan dauka... Hori horrela, turista askoren ostatu da, besteak beste. Eta alde horretatik, ez da aukerarik falta. Hotelak, pentsoak, kanpina, landetxea, nekazalturismoak... Denetik daukagu herrian. Gaiak askorako ematen du, baina azken egunetan nekazalturismoak izan dira albiste eta herriko nekazalturismoetako jabeekin bildu da Orri Informatiboa.

Europako araudira egokitzen

Orain gutxi jakin denez, Eusko Jaurlaritza egokitzen ari da nekazal inguruneetako turismo zerbitzuak erregulatzeko dituen araudia, hau da, nekazalturismo, landetxe, kanpin eta albergeei dagokiena. Europako zuzendaritzak zehazten duenera egokitzen ari dira. Komunikabideetan argitaratu dutenez, araudi berria udara baino lehen prest egon liteke. Dena dela, aldaketa bat aurreratu dute dagoeneko: nekazalturismoko jabeek dagoeneko ez dute zertan nekazalturismoan bertan bizi. Hori bai, nekazal aktibitate edo esplotazio bati loturik egon beharko dute, orain arte bezala. Ezaugarri horrek ezberdintzen ditu landetxeetatik. Gehienezko plazen kopuruak mugatua izaten jarraituko du.

Lege berriaren alde onak eta txarrak

Igeldon 5 nekazalturismo daude: Aristondo, Zelai-eder, Maddiola, Mar y Mar eta Harrigain. Lege berriari buruzko iritziz ezberdina dauka jabe bakoitzak. Batzuen ustez kalterako izango da, nekazalturismoen ezaugarri nagusia gertuko harremana izanik, hori galtzea daka-



relako euren ustetan. Beste batzuen ustetan, zerbitzu berdina eskaini daiteke bertan bizi gabe eta gainera bide ematen du jende gehiago animatzeko eta nekazaritzaren sektorea bultzatzeko.

Guztiak bat datoz behintzat gauza batean: inork ez du bere egoera aldatzeko asmorik eta gertuko tratua dute oinarri.

Nekatur elkarte

Nekatur elkarte 1991 urtean sortu zen eta bere barnean biltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoak eta landetxeak. Egun, Donostiako Kurasaalean dauka bulegoa. Bertan aurkitu daiteke nekazalturismo eta landetxe guztiei buruzko informazioa: eskaintzak, kokapenak, prezioak, argazkiak...

Halako jardueraren bat martxan jarri nahi duenak ere bertara jo besterik ez du zalantza argitzeko. Informazio gehiago: 943 32 70 90 edo www.nekatur.net.

Nekazalturismoek nekazal aktibitate edo esplotazio bati loturik egon beharko dute, orain arte bezala. Ezaugarri horrek ezberdintzen ditu landetxeetatik.



Marian Anza eta Unai Lizarralde ama-semeak Aristondoko ate nagusian.

Marian Anza eta Unai Lizarralde - Aristondo nekazalturismoa: "Nortasuna galtzea eragin dezake"

Aristondo nekazalturismoak (Pilotegi bidea, 70) 20 urte beteko ditu aurtengo uztailaren 31n. Baratzagintza ekologikoa lantzen dute. Eraikina bera, aurrez egin zuten, almagaz moduan erabiltzeko eta lagun batek bota zien ideia. Hasiera batean, proiektua aurkeztu zutenean, oztopoak jarri zituzten, eraikina baserriatik aparte zegoelako. Ordura arteko nekazalturismoak baserriaren eraikin berdinean izaten ziren.

Legea ona, inbertsioak egin nahi dituztenentzat

Lege aldaketari buruz galdetuta, Aristondoko jabeek azaldu dute, batzuentzat onurak izango dituela eta beste batzuentzat ez: "Bakoitzaren egoeraren arabera izango da. Hala ere, nekazalturismoaren ezabagarrietako bat bertatik bertarako zerbitzua, harremana eskaintzea da. Bertako nekazaritza jarduerak ezaugarri garrantzitsuak ematen du eta bide

batez, harremana lantzeko. Lege honekin, nekazalturismoaren nortasuna galdu egingo litzateke, inbertsonalagoa bihurtuz. Baina nekazalturismoan nekazal jarduerak aktiboak bada, lege honek ez luke hainbeste aldatuko nekazalturismoaren kasua, jarduerak berak lotzen baitu. Lege hau ongi dator nekazal inguruneetan inbertsioak egin nahi dituztenentzat, kalean bizi eta nekazal inguruan inbertsioa eginaz, hau da, nekazal guneetako turismoa garatzeko".

Bezeroak lehen, bezperan

Krisiaren eragina nabaritzen dela diote. "Lehen, asteburuetan, jendea ostiral iluntzetan etortzen zen. Eta Aste Santuan ere, asteazken iluntzetan etortzen zen. Orain, larunbatean egunez etortzen dira eta Aste Santuaren kasuan, ostegunean. Azken batean gau bat gutxiago da".

Dena dela, orokorrean Aste Santua ondo joan dela azaldu dute:

"Hori bai, pazko astea aurten lasaigoa izan da", gaineratu dute. Udarrari begira erreserba batzuk dagoeneko badituzte eta espero dute ohi bezala, uztaila eta abuztua osatzea; "iraila lasaigoa izaten da".

Barruko turismoa indartzen

Aristondora, batez ere, katalanak eta madrildarrak joan ohi dira, estatu mailatik. Eta kanpotik: alemanak, holandarrak, ingelesak, frantziarrak... Azken aldirian Euskal Herrikoak gehiago joaten zaizkiela nabarmendu dute: "bertako turismoa ere indartzen ari da".

Gehienak lasaitasun bila etortzen direla diote eta lo egiteko isiltasuna eskertzen dutela. Baserria eta nekazaritza ekologikoari buruzko interesa ere azaltzen omen dute batzuk. "Baratza ikusi eta produktuak ere erosten dizkigute, baina gehienak turismoa egi-tera etortzen dira".



Kontxi Sagarzazu Zelai-Eder nekazalturismoan txerrikumea eskutan duela.

Kontxi Sagarzazu - Zelai-Eder nekazalturismoa:

“Etxea aparte izatea ez dut gaizki ikusten; baina gertu egon beharko du”

12 urte daramatza Zelai-Eder nekazalturismoak (Ibaeta, 41). Juan Kruz Baldaren ideia eta asmoa izan zen eta pixkanaka proiektu horretan sartu zela dio Kontxi Sagarzazu emazteak. “Nik hasiera batean ez nuen sentitzen, niretzako gauza guztiek bere historia behar dute eta Zelai-Ederrek bere horretan ez zuen historiarik. Nik Artzai-Enea proiektua sortu dut, Zelai-Ederri nortasuna emateko”. Artzai bizimodua erakusten du, hau da, beraien lana zein den. “Gure nekazalturismora haurrak dituzten famili asko etortzen dira eta nik hurrekin lan hori egiten dut: ardiak jezten erakutsi, baserri bizimodua erakutsi... Nire ustez nekazalturismo batek bere nortasuna izan behar du eta jendeak gogoratu behar du bere berezitasunagatik. Gure kasuan, ba gazta usaina edo ardien usainagatik, ezta?”.

Gertutasuna, beharrezkoa

“Legea ondo iruditzen zait, beti ere famili bizitza eta nekazalturismoko bizitza ondo uztartzeko aukera ematen badu”, azaldu du Sagarzazuk lege aldaketaren inguruan. “Gertutasuna beharrezkoa da, nekazalturismoaren ezaugarrietako bat da. Bezeroak gertutasuna eta harremana bilatzen du eta hori emateko bertan egon behar zara. Horrek ez du esan nahi beste etxe batean egonagatik ezinezkoa denik, baina hurbil egon beharko du. Nekazalturismoetako generazio berriek agian euren bizitzako proiektua egin nahi dute eta horretarako distantzia pixka bat egotea ez zait gaizki iruditzen”, gaineratu du.


Orain dela 5 urteko garaiak, ez Krisia nabari dute Zelai-Ederren ere: “Guk negu garaian itxi egiten dugu,

ardiekin lan gehien izaten baitugu. Eta orain ireki dugun garaian, nabaritzen da beherakada. Hala ere, ezin gara kexatu. Aste Santuan eta Udan, normalean ongi egiten da lana, data fijoak baitira. Dena dela, orain 5 urteko egoerarekin ezin da konparatu, urte haiek joan dira”.

Orain, Katalanak batez ere

Estatu mailako jendea joaten da Zelai-Ederrera; eta Katalanak gehien bat. “Hasieran atzerritarrak gehiago etortzen ziren, Zelai Eder zenean. Baina Artzai Enea sortu genuenetik, haurrak dituzten familiak dira gure bezeroen gehiengo eta horiek estatu mailakoak dira, eta gehiengoak, Katalanak”.

Aurrez, askok, proiektua eza gutzen ez badute ere, ondoren horrekin geratzen direla dio.



Patxi Aranburu eta Edurne Iriando senar-emazteak Maddiola nekazalturismoaren atarian.

Patxi Aranburu - Maddiola nekazalturismoa:

“Kontua ez da bertan bizitzea; dedikazioa baizik”

2004an zabaldu zuten Maddiola nekazalturismoa (Aita Orkolaga 161), 9 urte bete ditu Aste Santuan. Patxi Aranburu eta Edurne Iriando irakasleak ziren eta 28 urtez ikas-kuntzan aritu ostean, bizitzari buelta ematea erabaki zutela dio Aranburuk. Dena ondo joan zaie eta gustora daude. “Jende asko ezagutu dugu eta lagunak ditugu toki guztietan. Jendearekin harremanetan zaude denbora guztian eta oso aberatsa da”. Animaliekin egiten dute lan eta azken urteetan alpapakak dituzte, besteak beste. Llamen antzekoak dira eta euren ilea izaten da negozio bidea.

“Nekazaritza bultzatzeko bidea bada, aurrera”

Legoa aldatzea ez du gaizki ikusten Aranburuk: “Bertan bizitzea baino garrantzitsuagoa da bezeroari orduak eskaintzea. Askok daude nekazalturismoan bizi direnak eta tratu hori lantzen ez dutenak, beraz

kontua ez da bertan bizitzea edo ez, dedikazioa baizik”.

Eta gaineratu du: “Niretzako lege aldaketa positiboa da, esaterako, jendea jubilatzen denean, askotan ez dago ondorengorik nekazalturismoarekin jarraitzeko eta gazte asko egon daitezke inguruan interesatuak. Zerbitzu berdina eskaini daiteke bertan bizi gabe. Ez dut oztopo bat bezala ikusten. Eta nekazaritza bultzatzeko bidea bada, aurrera. Jende gehiago animatzen bada negozio hau jartzera, hobe, bizia ematen die herriei”.

Aste barruan, jaitsi

Krisia, batez ere, katalanekin nabaritu dute, “asko eragin baitie eurei”. Erreserbei dagokienean, asteburutan, jai egunetan eta oporretan ez dute arazorik izaten, baina aste barrukoa nabarmen jaitsi dela azpimarratu du Aranburuk. Erreserben iraupena ere aldatu

omen da: “Lehen 15 egun pasatze-ra zetozenak, orain astebeterako etortzen dira”. Donostiako hoteletako prezioak ere asko jaitsi direla dio eta eragin handia duela.

Aste Santuari begira, beti bezala ondo egin dutela lan azaldu du. “Gainera, Beteranoen Atletismo Txapelketa izan zen eta azken 5-6 urteetako martxorik onenetakoa izan da”, dio. Udararako ere, aurreikuspen ona dute.

“Puxketa bat eramango nuke”

Maddiolara, orain, atzerriko jende gehiago joaten zaie: europarrak, batez ere, eta baita ipar amerikarrak eta hego amerikarrak ere.

Jatera eta inguruneaz gozatzerako etortzen direla dio Aranburuk: “Jendea terrazara ateratzean aho zabalik geratzen da paisaiarekin. Madrildar batek lehengoan halaxe esan zidan itsasoari begira: Hemen go puxketa bat eramango nuke”.



Mari Mar Hontoria Mar y Mar nekazalturismoko jardinean. Hortentsia ederrak dira nagusi bertan.

Mari Mar Hontoria - Mar y Mar nekazalturismoa:

“Legeak ez du koherentziarik”

Mar y Mar nekazalturismoa (Agiti bidea, 44) 2008an jarri zuten martxan. 11.200 m²ko basoak inguratzen du eta 1980tik hortentsiak ahazten dituzte, besteak beste. Mari Mar Hontoriak azaldu duenez, nekazalturismoa jartzea erabaki zuten, ordura arte zeramaten nekazal jarduera gainbeheran zijoalako eta baldintza oso onak zituztela ikusi zuten nekazalturismo bat jartzeko.

“Nekazalturismoa, nekazal aktibitate bat aurrera eramateko osagarri bat da”

Lege aldaketari dagokionean, Hontorioak dio bere ustetan ez duela koherentziarik, nekazalturismo baten izaera kontuan hartuta:

“Nekazalturismoa, nekazal aktibitate bat aurrera eramateko osagarri bat da. Zentzu hori dauka nekazalturismoak”.

Beraiek behintzat, orain arte bezala, bertan bizitzen jarraituko dutela azaldu dute: “Beti izan da gure helburua: leku berean bizi eta lan egitea”.

Pazko astean, jende gutxiago

Krisia asko eragiten ari zaiela azpimarratu du Hontoriak: “Logikoa da, gure bezeroei ere eragiten ari zaie”.

Hori horrela, aurtengo Aste Santua aurreko urteetako baino kaxkarragoa izan dela azaldu du: “Pazko astean jende gutxiago ibili da; lekua sobran izan dugu”.

Udarari begira jarria dago eta jendea ibiltzea eta urtea salbatzea espero dutela aitortu du: “Ez dira garai onak, baina espero dugu eguraldi onak eta daukagun inguruak bultzatuta jendea animatzea eta gure etxera etortzea”.

Donostiarekin gozatzeko asmotan

Mar y Marrera joaten diren bezeroak, batez ere, hiri handietakoak izaten dira eta inguruko probintzieta-koak. Horrez gain, europar eta amerikarrak ere gerturatzen dira.

Orokorrean, lasaitasuna bilatzen dute eta naturarekin kontaktuan dagoen ingurune atsegina bat. Donostiarekin gozatzea ere, izaten da helburua.



Aitziber Gabilondo Harrigain nekazalturismoaren atarian.

Aitziber Gabilondo - Harrigain nekazalturismoa:

“Bertan bizita, bezeroarekin harremana erabat desberdina da”

Bi urte eta erdi beteko dira Harrigain nekazalturismoa (Agiti bidea, 13) ireki zutela. Aitziber Gabilondok azaldu duenez betidanik eduki dituzte etxean haragitarako behiak. Familian komentatu zuten ideia eta aurrera atera dute. Animalia ugari dituzte bertan: oiloak, behiak, zaldiak, ardiak...

Lege aldaketa, negatiboa

“Lege aldaketa nik negatibotzat jotzen dut. Jabea nekazalturismoan bizitzea positiboa da. Bezeroarekin sortzen den harremana erabat desberdina da; gertukoagoa eta estuagoa. Jabea bertan bizi ez den momentutik harreman hori hotzagoa da. Azken

finean nekazalturismoen xarma hori da, beste hainbat gauzen artean; bezero eta etxearen artean sortzen den harremana”. Horixe da Gabilondok duen iritzia lege aldaketari buruz. Eta argi utzi du beraiek berdin jarraitzeko asmoa dutela: “Gustoko dugu sortzen den harreman hori eta ez genuke nahi aldatzea”.

Lehen erreserbak aurrez, denbora askorekin

Krisia nabaritu arren, ez daudela kezatzeko moduan azaldu du Gabilondok. Hori bai, erreserbak egiteko moduan aldaketa izan dela azpimarratu du: “Nekazalturismoa ireki genuenean erreserbak aurrez, denbora

askorekin egiten ziren; orain azken momentuan egiten ditu jendeak”.

Aste Santua oso ondo joan zela azaldu du eta udarari begira, uztaila eta abuztuan momentuz ez dagoela arazorik dio.

Udararako, atzerritar gehiago

Orain arte, bezero gehienak katalanak izan dituztela dio Gabilondok, baina udarako erreserba gehienak estatutik kanpoko atzerritarrenak omen dituzte, krisiaren eraginez-edo. Jendea, lasaitasun bila eta tripa bete eta ondo jatera etortzen dela gaineratu du: “Asko baloratzen dute etxe inguruko lasaitasuna eta aldi berean, Donostiatik dagoen gertutasuna”.

SAN ISIDRO-UDABERRI JAIA

MAIATZAK 15, ASTEAZKENA - SAN ISIDRO EGUNA

19:30 Igeldon lehenengo aldiz, Asto Dema, Eneko Sein-en eskutik.
Asto parek 700kg-ko harriarekin ibiliko da ordu erdian!

21:00 Afaria Calonge Sagardotegian.
Afariaren ondoren Alkorta anai-arrebak izando ditugu gaua girotzeko, Eli Pagola, Eñaut Martikorena, Xabi Iraola eta Mikel Olasagasti "Porlan" bertsolariekin batera.

**Txartelak eskuragarri maiatzaren
12ko eguerdira arte Txapela, Txistu eta
Calongen 30 eurotan.*



MAIATZAK 17, OSTIRALA

19:00 Hitzaldia Kultur Etxean. "Elikadura Burujabetza eta Nekazaritza Eredu berriak".

MAIATZAK 18, LARUNBATA

16:30 Haurrentzako ekintzak Kixmiren eskutik.

19:00 Asto karrera mundiala! Igeldoko asto Gaztiak antolaturik.

20:30 Barrikotea. Itsas-Aurreren eskutik eta Din-Din elkartearen laguntzarekin.

**Txartelak Txapelan salgai 12 eurotan*

23:30 Erromeria Leire Zumeta eta Amaia Arzarekin.



MAIATZAK 19, IGANDEA

17:00 Ieltxoko korto eta argazki lehiaketako finalak eta sari banaketa.

19:30 Bakarrizketa "Zer duzu Amy?"



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**